

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

407/2020 Foru Agindua, urriaren 27koa. Karrerako funtzionarioak izendatzea, Administrazio Orokorreko eskalako administrari azpieskalan karrerako funtzionario izateko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko 2017ko eta 2018ko enplegu publikoaren eskaintzari baitagokio

Otsailaren 15eko 82/2019 Foru Aginduaren bidez, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko 2017ko eta 2018ko lan eskaintza publikoaren oinarri arautzaile orokorrak onetsi ziren.

Uztailaren 16ko 277/2020 eta 278/2020 foru aginduen bidez, ondoko izangai hauek praktike-tako funtzionario izendatu ziren, Administrazio Orokorreko eskalan, administrari azpieskalan, eta lanpostu hauei atxikita:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Itziar de Miguel Aguirre	Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko administraria	2048.005
Aintzane Tamayo Pozo	Desjabetzapenetako administraria	2037.001

Oinarri orokorren 12 apartatuarekin bat etorritik, balioespen batzordeak praktikaldia balioetsi du. Oinarri horien 14 apartatuarekin bat etorritik, bidezkoa da praktikaldia gainditu duten izangaiak karrerako funtzionario izendatzea eta izendapena ALHAOn argitaratzea.

Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren, eta diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Dekretuak aldatu egin zuen foru dekretu hori. Bestalde, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaitan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zen. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Praktikaldia gainditu duten funtzionarioak karrerako funtzionario izendatzea, Administrazio Orokorreko eskalako administrari azpieskalan karrerako funtzionario izateko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko 2017ko eta 2018ko enplegu publikoaren eskaintzari baitagokio; honako lanpostu hauetara atxikita egongo dira:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Itziar de Miguel Aguirre	Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko administraria	2048.005
Aintzane Tamayo Pozo	Desjabetzapenetako administraria	2037.001

Bigarrena. Karrerako funtzionario izendaturiko izangaiak hilabeteko epea du, izendapena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bere lanpostuaz jabetzeko. Epe hori hamabost egun naturalez luza daiteke, izangaiak hala eskatzen badu eta arrazoi justifikatua badago.

Ezarritako epean lanpostua jabetzan hartzen ez badu, salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo ditu deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionario izaera eskuratzeko.

Hirugarrena. Sartu berri den funtzionarioa esleitutako lanpostuari atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortutakoa izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru Agindu honen aurka, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean. Hori guztia, honako hauek xedatutakoarekin bat etorritik: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikulua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 27a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR